

05/05 IRIZPENA

Lontxo Oihartzabal jn.
Javier del Campo jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Miren Izagirre and.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Otxoa jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko martxoaren 17ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *Musika-Ikasketen oinarritzko mailako eta maila ertaineko curriculuma eta maila hauetara nola iritsi ezartzen duen dekretu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio *Musika-Ikasketen oinarritzko mailako eta maila ertaineko curriculuma eta maila hauetara nola iritsi ezartzen duen dekretu proiektua*, kasuan kasuko aginduzko txostena eman dezan.

Era berean, Ikasketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzaren txostena igorri dio.

I.- AURREKARIAK:

Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren laugarren artikuluan ezarri legez, ondokoak dira curriculumaren osagaiak: hezkuntza praktika antolatzeko maila; etapa, ziklo, gradu eta modalitateen helburuak, edukiak, metodoak; eta ebaluazio irizpideak.

Bestalde, ekainaren 26ko 756/1992 Errege Dekretuak Musika-Ikasketen oinarritzko mailako eta maila ertaineko gutxieneko irakaskuntzak ezartzen ditu, eta irakaskuntza horiek Musika-ikasketen oinarritzko mailako eta maila ertaineko curriculumak ezartzen dituen urriaren 27ko 288/1992 Dekretuaren bidez aplikatzen dira EAEn.

Martxoaren 18ko 66/2003 Dekretuak Txistuko oinarritzko maila eta maila ertaina ezartzen ditu (EHAA 03/04/2).

Aztertzeo aurkeztu zaigun proiektuak txistuaren curriculumak barne hartu du eta aldarazpen batzuk egin ditu: irakasgai batzuen izenak, ikastorduak, ikasturte eta zikloen

berrantolakuntza; maila ertaineko hirugarren zikloko aukerako irakasgaien aurapeko-tzea eta hiru zikloetan irakasgai berria ezartzea eta Musikako maila ertainaren amaierari buruzkoa.

II.- EDUKIA

Dekretuak 25 artikulua ditu: 5 kapitulu, bi xedapen gehigarri, xedapen iragan-kor bat, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta lau eranskin. 1. kapituluan (lehenengo artikulutik laugarrenera) xedatu gisa, dekretu honek ondokoa arautzen du: Musika-ikasketen oinarrizko mailako eta maila ertaineko Curriculuma; Oinarrizko mailara sartzeko irizpideak eta maila ertainera iristeko proba; eta ebaluazio eta promozio irizpideak. Bigarren artikuluan, aplikazio eremua ezartzen da eta 3. artikuluan xedatu bezala, musika-ikasketek lau ikasturte izango dituzte oinarrizko mailan eta bina ikasturteko hiru ziklo, berriz, maila ertainean. Laugarren artikuluan, curriculumaren kontzeptua definitzen da.

II. Kapitulu (5. artikulutik 7.era) oinarrizko mailaren helburuak eta espezialitateak ezartzen dira. 7. artikuluan, berriz, irakasgaiak eta euren curriculumak jasotzen dituzten eranskinak aipatzen dira, baita maila horretako metodologi printzipioak ere. Era berean, musika tresnen irakaskuntzarako irizpideak ezarri dira.

III. Kapitulu (8. artikulutik 14.era) maila ertainaren helburuak, espezialitateak, irakasgaiak, curriculum eta metodologi printzipioak ezartzen dira. 11 eta 12. artikuluetan, hurrenez hurren, derrigorrezko irakasgai erkideak ezartzen dira, baita espezialitateko derrigorrezko irakasgaiak ere. 13. artikuluan, aukerako irakasgaiak definitzen dira: oinarrizko aukerako irakasgaiak eta osagarriak. Era bertsuan, artikulua horretan, irakasgaien antolakuntza, derrigorrezko eskaintza eta aukerako irakasgai berria onartzeko prozedura ezartzen da. 14. artikuluan, Lanbide Espezializazioko Programak ezartzen dira.

IV. Kapitulu (15. artikulutik 22.era) maila bietako xedapenak arautzen dira: ikastetxeko curriculum proiektua, programazioak, tutoretza eta orientazioa, ebaluazioa, promozio irizpideak, ikasketen ondoriozko ziurtagiria eta titulazioa eta hezkuntza beharrezkoak dituzten ikasleentzako curriculum egokitzapenak. 22. artikuluan, irakasgaiak eman behar dituzten irakasleen titulazioa aipatzen da.

V. Kapitulu, Oinarrizko Mailako (23. art.) eta Maila ertaineko (24. art.) musika irakaskuntzarako sarbidea arautzen da; 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hezkuntza Sailari dagokio maila batean baino gehiagotan izena eman ahal izateko baldintzak ezartzea.

Lehenengo Xedapen Gehigarrian, musikako irakaskuntza eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza aldi berean egiteko aukera dago xedaturik. Bigarrenean xedatutakoaren arabera, berriz, aukerako irakasgaiak gehitzeak ez du ekarriko langile-zerrendak handitzea Hezkuntza Sailaren menpeko kontserbatorioetan.

Xedapen Iragakorreen xedatzen da zein ikasturtetan, mailatan eta gradutan egongo den indarrean dekretua.

Ondokoak indargabetzen ditu Xedapen Indargabetzaileak: 288/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Musika-ikasketen oinarritzko mailako eta maila ertaineko curriculuma eta maila hauetara nola iritsi ezartzen duena; eta 66/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, Txistuaren Oinarritzko Mailako eta Maila Ertaineko curriculuma ezartzeko dena.

Azken xedapenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari ematen zaio dekretuan ezarritakoaren aplikaziorako beharrezko diren xedapenak ezartzeko baimena.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek balorazio ona egin du lehen aurkeztutako dekretu proiektuari buruz. Dekretuak osorik jaso du Txistuaren Oinarritzko Mailako eta Maila Ertaineko curriculuma ezartzeko martxoaren 18ko 66/2003 Dekretuaren –Kontseiluaren oniritzia jaso zuen- edukia; eta aurreko dekretuaren alderdirik funtsezkoenak biltzeaz gain, irakasgaien berrantolaketaren hirugarren zikloko aukerako irakasgaien araupetzearen alderdi batzuk aldarazi ditu.

Dena den, ohar batzuk egin nahi ditugu artikuluei buruz:

- 2. artikuluan, lurralde esparrua agertu ordez, aplikazio esparrua agertu beharko litzateke.
- Honelaxe dago xedaturik Lehenengo Xedapen Gehigarrian: “*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio musikako eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak aldi berean ikasteko aukera bideratzea, eta horretarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasgaien baliozkotzeetarako eta curriculum egokitzapenetarako irizpideak eta prozedurak ezarriko ditu.*” Hala ere, gai horiek guztiak 2004ko abenduaren 3ko Aginduan jaso ziren, zeinak bigarren hezkuntzako ikasketak erdi-mailako musika- eta dantza-irakaskuntza artistikoekin batera egin ahal izateko neurriak ezartzen baititu, beraz, egokiagoa izango litzateke agindu hori aipatzea, edo alderdi berriak jorratzen badira, argiago azaltzea.
- III eta IV. Eranskinetan akats bat egin dela antzeman dugu, zeren Txistuaren Oinarritzko Mailako eta Maila Ertaineko curriculumaren helburuak azaltzean, urriaren 27ko 288/1992 Dekretuaren (EHAA, 1992ko abenduaren 16koa) 8. artikuluan jasotako helburu orokorrak aipatzen baitira. Hortaz, gure iritziz, dekretuaren artikulua aipatu beharko lirateke, non maila bion helburuak jasotzen di-

ren. Beste alde batetik, helburu horiek musika tresna guztiei dagozkienak dira, beraz, egokiagoa izango litzateke paragrafo horiek biak ezabatzea.

- Curriculumei dagokienez, gure aburuz, zuzena da ebaluazio helburuen, edukien eta irizpideen formulazioa.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2005eko martxoaren 18an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz. Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.